

PLE 7-MAR-24 (5/CP)

**KREDITU-ALDAKETAK IRUÑEKO UDALAREN 2024KO
AURREKONTU LUZATUAN, UKITUTAKO DIRUZAINZAKO
GERAKINAREN BIDEZ FINANTZATUA (EUROPAKO
DIRULAGUNTZAK).**

PLE 7-MAR-24 (5/CP)

« IKUSIRIK Iruñeko Udalaren 2024ko aurrekontu luzatuaren aldaketari buruzko espedientean jasota dauden agiriak (Alkatezak 2023-12-29ko ebazpenaren bidez onetsi zuen aldaketa hori, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren arloan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuak ezarritakoarekin eta indarreko aurrekontua betetzeko oinarriekin bat beharrezkoa baita Europako dirulaguntzetatik datozen diruzaintzako gerakin ukituarekin finantzatutako proiektuen gastuetarako), eta alorrak proposatutako gastu eta inbertsioak, premiazkoak eta atzerazinak direla kontuan hartuta, HAU ERABAKITZEN DA:

1.- 3.099.102,88 euroko kreditu berezia onestea Iruñeko Udalaren gastu-aurrekontuko 31/13400/619000 aplikazioan (Mugikortasuna, Inbertsioak eta konponketak erabilera publikoko ondasunetan), 3.099.102,88 euroko zenbatekoarekin, Belosoko bidegorria eraikitzeko, 20/87010 partidako (finantziazio ukituko gastuetarako Diruzaintzako Gerakina) diru-sarreraren aurreikuspena zenbateko berean gehituz finantzatuta.

2.- Aldaketa hauei aplikatzen ahalko zaie indarreko aurrekontua betetzeko oinarrietako 10.aren 8. apartatua, aurrekontu-aplikazio berriak sortuz gero gastuaren behin betiko egozpenean.

3.- Indarrean dagoen aurrekontuaren 4. oinarrian ezarritakoarekin bat, erabaki honetako 1. puntuan onetsitako aldaketak jendaurrean jartzea hamabost egun naturaleko epean, erabakia Iruñeko Udalaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik aitzina. Epe hori iraganik, alegaziorik aurkeztu ezean, hasierako onespeneren erabakia behin betiko onetsizat joko da. Hasiera batean onetsitako aldaketa baten kontra jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztuz gero, Osoko Bilkurak berariaz behin betiko onetsi beharko ditu horiek indarra har dezaten.

Pamplona, a 25 de marzo de 2024

Iruñean, 2024ko martxoaren 25ean

DILIGENCIA / EGINBIDEA

La pongo yo, el Secretario del Pleno del Excmo. Ayuntamiento de Pamplona, para hacer constar que el presente documento ha permanecido expuesto al público en el Tablón de Edictos de este Ayuntamiento desde el día 8 de marzo de 2024 hasta el día 22 de marzo, ambos inclusive, para dar cumplimiento a lo dispuesto en la Ley Foral 2/1995, de 10 de marzo, de Haciendas Locales de Navarra, sin que en dicho periodo se hayan producido reclamaciones.

Nik jartzen dut, Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurako idazkaria naizen honek, jasota uzteko agiri hau Udalaren ediktu-taulan jendaurrean egon dela ikusgai 2024ko martxoaren 8tik 22ra bitarte, bi egun horiek barne, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean xedatutakoa betetze aldera, aldi horretan ezein erreklamaziorik aurkeztu ez delarik.

EL SECRETARIO / IDAZKARIA,